BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2955

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 23koa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinen bidez argitara ematen baita ekintzaileei laguntzeko eta hazkundea eta enplegua sustatzeko neurriei buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuaren inguruan Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordearen Akordioa.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den akordioa hartu ondoren, eta artikulu horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea ebazpen honen eranskinean jasota dagoen honako akordio hau: Akordioa, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordearena, ekintzaileei laguntzeko eta hazkundea eta enplegua sustatzeko neurriei buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuari buruzkoa.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 23a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,
SABINO TORRE DÍEZ.

ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO BITARIKO LANKIDETZA BATZORDEA

AKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO BITARIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA, EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO ETA HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA SUSTATZEKO NEURRIEI BURUZKO OTSAILAREN 22KO 4/2013 ERREGE LEGE DEKRETUARI BURUZKOA.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordeak honako akordio hau hartu du:

1.– ekintzaileei laguntzeko eta hazkundea eta enplegua sustatzeko neurriei buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuaren 38. artikuluari eta eranskinari dagokionean sortutako desadostasunak ebazteko negoziazioei ekitea.

2.– Lan-talde bat izendatzea Bitariko Lankidetza Batzordeari irtenbide egokia proposatzeko.

3.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2013ko maiatzaren 17a.

Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa,
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.